

## Galdera

Kaixo, Zalantza sortu zaigu \* 'atxikituta' edo 'atxikita' ote den. Hau da nola esan behar da.  
\* "atxikituta dago artxiboa" edo "atxikita dago artxiboa". Mila esker.

## Erantzuna

'erantsia', 'erantsita', 'erantsirik', 'atxikia', 'atxikita', 'atxikirik' edo "honekin batera doana" dira ohikoenak. \* 'atxikitu', \* 'atxikituta', \* 'atxikiturik', \* 'atxikitutako', \* 'atxikituriko'... ez dira zuzenak.

**1/** Euskaltzaindiaren Hiztegiak —ezta besteek ere— ez du jasotzen \* ['atxikitu'](#) aditza. Bai, ordea, 'atxiki', testuinguru batzuetan 'erantsi' aditzaren sinonimoa dena. *-tako / -riko* adjektibo-atzizkiak gehituz gero, 'erantsitako'/'erantsiriko' eta 'atxikitako'/'itxatxiriko' formak izango ditugu. Era berean, *-ta* edo *-rik* atzizkiekin, 'erantsita'/'erantsirik' eta 'atxikita'/'itxatxirik'.

**2/** Zenbait lekutan, aditz batzuen aspektu burutua indartzeko beharra sentitu izan dute, eta partizipio berretuak sortu dituzte ('izan' eta 'egon' aditzetatik, kasurako, 'izandu', 'egondu', 'izatu', 'egotu'...). Horrela gertatu da Baztan eta Bidasoa inguruan eta beste hainbat aldaeretan. Ez dakigu \* 'atxikitu' aditza ere bide horretatik eratua den, baina guk behintzat antz hori ematen diogu.